

# Nekazarien haurren lotsa



**KIMETZ ARANA  
BUTROE**  
BARATZEZAINA

**O**raindik orain nekazari familietako gazteek beren jatorria aitortu eta etxeokaz hitz egiteko lotsa dute.

Lanbide desberdinak eskolara hurbiltzeko Ikas2deak proiektuaren bidez, urtero EAEko dozena bat ikastetxetara joateko aukera dut. Elikaduraz eta nekazaritzaz ari garela, hirian edo herri txikian oso desberdina izaten da sortzen den ikasleen motibazio eta lotura.

Arabian hainbeste nabaritu ez dudan arren, *kaxero*, *borono* edo *aldeano* hitzen karga handia da oraindik Bizkaia eta Gipuzkoako herri txikietan. Baserriko gazteek eskolan beren bizipen edo gogoak isiltzeko erabakia egoera honen isla da.

Hirietan berriz, erabatekoa da jaten dugunarekiko ezezagutza. Bilbo inguruko gazteek ez dakite Idiazabal gazta zein den. Erraza da beraz jabetzen, gertuko, sasoiko, fresko edo kimikorik gabeko elikagaiak bereiztea ezinezko dela haientzat.

Batak zein besteak badute elkarrekiko lotura. Jendarteak ez badio jaten duenari garrantzirik ematen, janari ona sortzen duenak nekez baloratuko baitu bere lana.

Iparraldean aldiz nekazari izatearen harrotasuna handitu den irudipena dut. Azken hamarkadan nekazariak sortutako hurbileko komertzializazio sareek, elikagai eraldaketan izaniko hazkundea eta elikagai osasuntsua jateko jen-

dearen nahiak, sektorea balorizatu eta ikusgarri egin baitute.

Sentsibilitate horren adierazgarri da Hendaia bezalako hirian, udalak 20 hektareako lur saila erosi, hirigintza planean nekazaritzarako izendatu eta bertatik bertarako elikagai osasuntsuak ekoiztera bideratzea.

Gurean berriz, Meatzaldeko udal-tan ez da oraindik nekazal edo elikadura sailik existitzen. Beraz merkatal zentroz inguraturik, herritarren janaria aukeratu eta eskaintzea supermerkatuen esku dago ia osoki.

Hala ere, bizi dugun estresa, kutsadura eta elikagai industrialen ondoriozko gaitzen eraginez, hemen ere handitzen ari da osasuna eta elikaduraren garrantzia.

Horrela, gure eskualdeetan gertatzen ari den lanaren esklabizazio, prekarizazio eta uberizazioaren aurrean, eta aurreikusten den koronabirusaren ondoriozko hondamendian, nekazaritza izan daiteke duintasunez bizi, aberastasuna sortu eta sozialki zerbait baliagarria egiteko bideetako bat.

Areago, estrategikoa izan daiteke hirietatik gertu lurra duten eta ekonomiki odolusturik dauden Enkarterri bezalako eskualdeetan.

Honetaz guztiaz jabetuz bada garaia konplexu zaharrak baztertu eta ditugun aukerak baliatzekoa. Nekazari, langile eta harro. ●

# Seme sinpatikoak



**EDU ZELAIETA ANTA**  
IDAZLEA ETA  
IRAKASLEA

**A**ita *sinpatikoak* izeneko zutabe bat argitaratu zenuen aldizkari honetan bertan, duela ia hamahiru urte. Eta, nolabait, haren segidakoa izan daiteke orain idazten hasi zaren beste hau: *Seme sinpatikoak*. Oraingoan, arestiko izenburuak agertzen duenez, semearen roletik ari zara, eta, orduko hartan bezala, zenbaitek sinpatikotzat hartu berri zaituzte azkenaldian. Klean. Paseoan.

Zure aurrean doa ama, artrosiak bigarrenez erasandako aldetan ebakuntza egin bitartean, aulki gurpildun batean. Aste gutxi batzuetako kontua izaten ari da aulkiarena: operazio gelan sartu au-

rretiko proba ohikoak eginak dizkiote dagoeneko. Denbora laburra izanagatik ere, seme onaren opari soziala jasotzeko nahikoa asti egon da. Kontent joaten ahal zara etxera –amarenera ez, zurreragindako lan apalaren trukean irabazitako ospeagatik. Aisa sartzen da arnasa halakoetan, ongi begiratua denaren birketako barrunbeetan.

Aita sinpatikoa izan zinen iragan bolar batez, eta seme sinpatikoa omen zara orain. Zail gertatzen da, bai eta antipatiko ere, uko egitea kategoria sozial ezin atseginago bati. Zenbat txalo eta sari, oraindik, gizona izateagatik. ●